

BERTSO BERRIAK

Aitor Alkistur

Bertso esaldia

Bertso bakoitzaren azken oinak jarraian irakurtzean, J.A. Artze-ren esaldi famatua agertzen da.

I

Artze-k azaldu zuen problemaren funtsa eta bere mezua dakart nik honuntza. Ikastoletan jaso badugu hezkuntza euskarari eskaini beharko laguntza, herri baten arnasa delako **hizkuntza**.

II

Nahiz euskaldun sentitu hainbat eta hainbat zinez ba ote garen zalantza badaukat: bihotza euskalduna ei dugu erabat, baina, erdaraz mintzo gara etxetik at... Hala ezin daiteke suspertu herri **bat**.

III

Adibidez, dendara sartzean galdezka gazteleraz mintzatu ohi gara gu, ezta? Txip aldaketa hori egitera presta; pentsatze hutsak sortzen digu hainbat kezka, baina, ahalegintzea horren zaila **ez da**.

IV

Lau haizeetara hasi orduko zabaltzen haizea zurrumbilo bilakatu al zen? Euskararenugarria ari da itzaltzen... orain ez du txingarra besterik azaltzen ta gaitzerdi hausporik ez badugu **galtzen**.

LANDER ARBELAITZ



V

Zer gerta dakioken daki ondorenak... biziraungo duela esan dit barrenak. Horretarako batu ditzagun kemenak, euskara erabiliz euskaldun garenak. Noizbait ikasiko du gaur **ez dakienak**.

VI

Ez ote gara ari kontzeptuak nahasten? Ez al zaigu euskara norena den ahazten? Artze-k argitu zidan niri azkenik-azken: euskaldunok euskaraz ez bagara hasten erdaldun bat nolatan hasiko da **ikasten?**

VII

Gure herria oso anitza delako euskaldunez gain daude hainbat bestelako. Euskara hartu behar lukete aintzako eta ulertzen behintzat saiatu beharko... Lortu ez duena da nahi **ez duelako**.

VIII

Errurik ez du, baina, euskotarra denak erdaraz mintzatean euskaldun gehienak. Gure baitan dauzkagu irtenbide denak... Ez ditu entzun behar hain sermoi ozenak bere hizkuntza zein den garbi **dakienak**.

IX

Gure errua onartzen ez dugu jakiten, baina, neurea behintzat ez dut ekiditen. Buruari jardunda asko eragiten: euskara gabe ezin banaiz plazara irten bihartik hasiko naiz beti **hitzegiten!**

X

Gure herria oso anitza delako euskaldunez gain daude hainbat bestelako. Euskara har dezagun guztiok aintzako! Denok geure moduan lagundu beharko euskara hiltzerik inork nahi **ez duelako**.

XI

Artze bere garaian ez zegoen pozik, ez zuelako gura hain herri eskasik. Kontuak kontu denok ahaztu dugu kasik herriak ez duela sortu euskal hitzik, euskarak herri egin gaituela **baizik**.

DOINUA: "Lagundurikan danoi".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.